



Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko
ikasketari buruzko dokumentuak

Emakumeen prestakuntza

76. dokumentua

2021eko martxoa

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa
Ingurunekeko Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de Promoción
Económica, Turismo
y Medio Rural

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
1.1. Aurkezpena	3
2. Emakumeen prestakuntza	4
2.1. Emakumeak eta eskuratutako prestakuntza	4
2.2. Emakumeak, lortutako prestakuntza maila eta adina	6
2.3. Emakumeen eta gizonen alderaketa	12
3. Emakume gazteak, prestakuntza eta lan-egoera.....	14
3.1. Aurkezpena: prestakuntza eta enplegarritasuna.....	14
3.2. Hezkuntzaren uzte goiztiarra.....	15
3.3. Lanbide-heziketako ikasketak amaitutako emakumeak.....	17
3.4. Unibertsitateko ikasketak amaitutako emakumeak	20
4. Emakumea eta biziaren osoan zeharreko ikaskuntza	23
4.1. Bizitza osoko ikaskuntzaren definizioak	23
4.2. Emakumeen parte-hartzea ikaskuntzan	24
4.3. Emakumeen parte-hartzea ikaskuntzan, eta adina	25
4.4. Ikasteko arrazoiak	26
4.5. Ez ikasteko arrazoiak	27
4.6. Emakumeen eta gizonen alderaketa	29
5. Ondorioak.....	31
5.1. Laburpena: emaitza nagusiak.....	31

1. Aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Lan-dokumentu honen helburua Gipuzkoako emakumeen egoeraren balantzea aurkeztea da, eskuratutako prestakuntzari eta lanbide heziketako eta unibertsitateko programetan ikasketak amaitu dituzten emakumeen enplegarritasunari (azkenaldikoa) dagokionez. Emaitza horiek emakumeek bizitza osoko ikaskuntzan duten parte-hartzearekin osatzen dira.

Azken finean, emakumeen prestakuntzari eta ikaskuntzari buruz erakunde batzuek eta besteek lantzen duten, eta eskuragarri dagoen informazioaren baterako balantzea egitea da asmoa, hala, metodologia sistematizatuen bidez landutako informazioari jarraipena egin ahal izateko. Emaitzak honako informazio-iturrietatik Bildu dira:

- Pertsonak eta eskuratutako ikasketa maila (generoaren eta adinaren arabera) Gipuzkoan, Eustatek egina.
- Lanbide heziketako eta unibertsitateko sistemetan ikasketak amaitutako pertsonak, Lanbidek egina, eta EAERI dagokionez.
- Hezkuntza-uzte goiztiarra (generoaren arabera), Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak egina, eta EAERI dagokionez.
- Eta amaitzeko, Gipuzkoako helduen bizitza osoko ikaskuntzari buruzko inkesta, Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Sailak (GFA) egina.

Kasu guztietan, txostena egiteko unean eguneratutako informazioa erabili da, eta emakumeen kolektiboari eta gizonekin alderatuta duten posizioari buruzko datuak aurkeztea izan da ardatza.

2. Emakumeen prestakuntza

2.1. Emakumeak eta eskuratutako prestakuntza

Emakumeek gero eta prestakuntza hobea dute Gipuzkoan

2010etik 2019ra, ikusi da Gipuzkoako emakume helduen¹ (25-74 urte) prestakuntza mailak nabarmen egin duela gora, emakumeek ikaskuntza formalean gero eta parte-hartze handiagoa izatearen erakusle.

1. taula Gipuzkoako emakume helduen ikasketa-maila. 2010 eta 2019

25-74 urteko emakumeak

	2010		2019		Diferentzia
	Guztira	%	Guztira	%	
Ikasketa maila					
Lehen maila baino gutxiago	5.874	2,5	3.545	1,5	-2.329
Lehen mailakoak	86.465	36,7	65.331	27,7	-21.134
Profesionalak	35.617	15,1	45.268	19,2	9.651
Bigarren mailakoak	42.744	18,1	42.613	18,1	-131
Goi eta erdi-goi mailakoak	65.190	27,6	79.063	33,5	13.873
GUZTIRA	235.890	100,0	235.820	100,0	-70

Iturria: Hezkuntzaren Udal Estatistika, Eustat

Hala, kontuan hartuta emakumeen biztanleria ia-ia berdin mantendu dela aztertutako aldian:

- Igo egin da ikasketa profesionalak dituzten emakumeen kopurua (35.617tik 45.268ra; + 9.651 emakume), goi mailako ikasketak eta erdi-goi mailakoak egin dituzten emakumeekin batera (65.190etik 79.063ra; + 13.873 emakume).

¹ Azterketa 25-74 urteko taldera mugatu da (biztanleria heldua), bitzta osoan zeharreko ikaskuntzaren xede den biztanleria.


- Jaitsi egin da lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen kopurua (86.465etik 65.331era; - 21.134 emakume); baita lehen maila baino ikasketa baxuagoak (- 2.329) eta bigarren mailakoak (-131) dituzten emakumeen kopurua ere.

Hala, eta 2019ko emaitzen arabera:

- Gipuzkoako emakume helduen herenak goi mailako ikasketak eta erdi-goi mailakoak dituzte (% 33,5), eta atzetik dituzte lanbide-heziketa egin dutenak (% 19,2). Orotara, emakumeen erdiek baino gehiagok zuten hirugarren mailako hezkuntza 2019an (% 52,7).
- Hala ere, ikasketa orokorrak dituzten emakumeen pisua (oraindik) garrantzitsua da (% 45,8, lehen edo bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen multzoa), nahiz eta beheranzko joera argia duen 2010etik (% 54,8; - 9,0 puntu).
- Eta baieztatu egin da prestakuntza maila eskaseko emakumeen pisu marjinala.

Beraz, 2010ean eta 2019an lortutako emaitzek baieztatu egiten dute emakume helduen batez besteko prestakuntzan izandako hobekuntza-prozesua: atera egiten dira adin handiagoko eta ikasketa maila baxuagoko pertsonak eta, aldiz, sartu egiten dira prestakuntza formalean ibilbide zabalagoa duten emakume gazteak. Horregatik du gero eta pisu handiagoak goi eta erdi-goi mailako prestakuntzak.

1. grafikoa Emakumeen banaketa, lortutako prestakuntzaren arabera. 2010 eta 2019



Iturria: Hezkuntzaren Udal Estatistika, Eustat

2.2. Emakumeak, lortutako prestakuntza maila eta adina

Belaunaldi gazteenek lortu dute prestakuntza mailarik altuena

Adina faktore garrantzitsua da pertsonen lortutako prestakuntza mailan, eta behera egiten du pertsonen adinak gora egin ahala. Hala ere, egoera hori asko baldintzatzen dute bi faktorek:

- Batetik, nahitaezko hezkuntza pixkanaka txertatzea², eta horrek zuzenean eragiten dio emakumeen prestakuntza mailaren hobekuntza erlatiboari, adin handiagoa dutenekin alderatuta (aurreko belaunaldiak).
- Bestalde nahitaezkoa ez den hezkuntza formalak (ikasketa profesionalak eta goi eta erdi-goi mailako ikasketak) izandako bultzada handia, faktore baten baino gehiagoren emaitza gisa; horien artean daude seme-alaba kopurua txikiagoa izatea, errenta mailak hobetzea eta prestakuntzaren alde egin den apustua, enplegu hobea bermatzeko bide gisa.

Bi gertaera horien inpaktu soziala agerikoa da belaunaldi gazteenak, adinean aurrerago daudenekin alderatuta, prestakuntza mailan izaten ari diren pixkanakako hobekuntzan. Eskuratutako zifrek hau erakusten dute:

- Goi eta erdi-goi mailako ikasketak dituzten 25-34 urteko emakumeen kopurua (18.141) prestakuntza hori duten 65-74 urteko emakume kopuruaren (4.197) laukoitza da.
- Era berean, lanbide heziketa duten emakume gazteak (25-34 urte) zaharragoen artean titulazio hori dutenen bikoitza dira (7.510 eta 3.397 emakume; 25-34 eta 65-74 urtekoak).
- Aldiz, lehen mailako ikasketak baino apalagoak dituzten 25-34 urteko emakumeen kopurua zaharragoen taldekoen herena baino gutxiago da (576, eta 65-74 urteko emakumeak 1.619).
- Egoera hori are nabarmenagoa da lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen artean: emakume gazteek adinekoen hogeitik bat osatzen dute (1.749 eta 25.358, 25-34 urteko eta 65-74 urteko emakumeak).

² Hezkuntza Lege Orokorrak (1970) ezarri zuen ordura arte etapaka landutako curriculum-ibilbidea (Lehen Hezkuntzako Legea, 1945, Bigarren Hezkuntza Antolatze Legea, 1953...). Hau da, 60ko hamarkadan jaiotako belaunaldiak dira 6-14 urteetan eskolatzeko eskakizuna eraginkortasunez aplikatu zaien lehen belaunaldiak.

2. taula Gipuzkoako emakumeen ikasketa-maila, adinaren arabera. 2019

25-74 urteko emakumeak

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74	Guztira
Ikasketa maila						
Lehen maila baino gutx.	576	439	328	583	1.619	3.545
Lehen mailakoak	1.749	6.678	13.178	18.368	25.358	65.331
Profesionalak	7.510	10.784	14.094	9.483	3.397	45.268
Bigarren mailakoak	6.960	9.898	7.846	9.699	8.210	42.613
Goi eta erdi-goi maila	18.141	24.744	20.056	11.925	4.197	79.063
GUZTIRA	34.936	52.543	55.502	50.058	42.781	235.820

Iturria: Hezkuntzaren Udal Estatistika, Eustat

Adin-talde bakoitzak hezkuntza maila bakoitzari egiten dion ekarpenari dagokionez, eta Gipuzkoako emakume helduei egiten dieten ekarpenari dagokionez, baieztatu da:

- Faktore demografikoa: talde gazteenak (25-34 urte, 1994-1985ean jaiok) Gipuzkoako 25-74 urteko emakumeen % 14,8 osatzen du. Talde txikiena dira (baita adinean aurreratuen daudenak baino), eta gainera, talde jendetsuena (45-54 urte, 1965-1974ean jaiok, *baby boom*) baino 8,7 puntu beherago daude.
- Bestalde, prestakuntzari lotutako hobekuntza nabarmentzen da:
 - o Adin-talde bakoitzak lehen mailako hezkuntza baino maila apalagoan duen pisuak behera egiten du 45-54 urtekoen taldera arte (% 9,3, eta guztizkoan duen pisua baino txikiagoa, % 23,5), eta gora egiten du bi adin-talde gazteenetan; baliteke horren atzean immigrazioa egotea.
 - o Eta, adin-talde bakoitzak aurrekoa hobetzen du: 65-74 urteko emakumeak lehen mailako hezkuntza baino maila apalagoan dira nagusi, 55-64 urtekoak lehen eta bigarren mailako hezkuntzan, 45-54koak ikasketa profesionaletan, eta gazteenak, goi eta erdi-goi mailako ikasketetan.

3. taula Emakumeen banaketa ikasketa-maila bakoitzean, adinaren arabera. 2019

25-74 urteko emakumeen %

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74	Guztira
Ikasketa maila						
Lehen maila baino gutx.	16,2	12,4	9,3	16,4	45,7	100,0
Lehen mailakoak	2,7	10,2	20,2	28,1	38,8	100,0
Profesionalak	16,6	23,8	31,1	20,9	7,5	100,0
Bigarren mailakoak	16,3	23,2	18,4	22,8	19,3	100,0
Goi eta erdi-goi maila	22,9	31,3	25,4	15,1	5,3	100,0
GUZTIRA	14,8	22,3	23,5	21,2	18,1	100,0

Letra lodiz, adin-talde bakoitzaren guztizkoan ekarpena gainditzen duten balioak.

Iturria: Hezkuntzaren Udal Estatistika, Eustat

Emakume gazteen erdiak erdi mailako edo erdi-go mailako ikasketak dituzte

Erantsitako taulan xehetasun handiagoarekin dago azalduta hezkuntza-egituraren aldaketa, adin handieneko belaunaldietatik (65-74 urteko emakumeak) helduen belaunaldi gazteeneraino (25-34 urte). Hala,

- 25-34 urteko emakumeen erdiek goi mailako eta erdi-go mailako ikasketak egin dituzte (% 51,9), eta proportzio horrek nabarmen egiten du behera adinean gora egin ahala (% 47,1, % 36,1 eta % 23,8; 35-44 adin-tartean, 45-54 adin-tartean eta 55-64 adin-tartean, hurrenez hurren), eta % 9,8ra jaisten da (65-74 urteko emakumeen artean).
- Patroi hori bera ikusten da lanbide-heziketa duten emakumezkoen artean: 25-34 urteko hamar emakumetatik bi (% 21,5) sartzan dira hor, eta % 7,9ra jaisten da 65-74 urtekoen kolektiboan.
- Lehen mailako hezkuntzak alderantzizko jokabidea du: 65-74 urteko emakume gehienek lehen mailako ikasketak dituzte (% 59,3), eta 25-34 urtekoen artean, ehuneko hori oso baxua da: % 5,0.
- Azkenik, lehen mailako hezkuntza burutu ez duten emakumeek ekarpen oso txikia (% 4 azpikoa) dute aintzat hartutako adin-talde guztietan, eta bigarren mailako hezkuntzaren pisua ez da adinaren arabera aldatzen (% 20 inguru).
- Laburbilduz, lortutako prestakuntza mailaren hobekuntza garrantzitsua da emakumeen enplegarritasunerako, eta gainera, posizio hobean kokatzen ditu bititza osoko ikaskuntzaren aurrean.

4. taula Emakumeen ikasketak-maila, adinaren arabera. Gipuzkoa, 2019

25-74 urteko emakumeen banaketa (%)

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74	Guztira
Ikasketak maila						
Lehen maila baino gutx.	1,6	0,8	0,6	1,2	3,8	1,5
Lehen mailakoak	5,0	12,7	23,7	36,7	59,3	27,7
Profesionalak	21,5	20,5	25,4	18,9	7,9	19,2
Bigarren mailakoak	19,9	18,8	14,1	19,4	19,2	18,1
Goi eta erdi-go maila	51,9	47,1	36,1	23,8	9,8	33,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Hezkuntzaren Udal Estatistika, Eustat

Hobetu egin da emakumeen prestakuntza, baina Gipuzkoak gazteak galdu ditu

2010eko datuekiko alderaketak erakusten du, lehenik, igo egin dela goi mailako eta erdi-goi mailako ikasketak (+13.873) eta lanbide heziketakoak dituzten emakumeen kopurua (+9.651), ikasketa orokorrak dituztenen kaltetan (-23.594).

Bigarrenik, populazioaren zahartzearen faktorea erakusten du, emakume gazteen proportzioa txikiagoa baita 2010etik 2019ra (-13.445 eta -2.824 emakume; 25-34 eta 35-44 urte), eta adin-talde handiagoek, berriz gora egin baitute (+3.075, +4.604 eta +8.520 emakume; 45-54, 55-64 eta 65-74 urte). Egoera hori ondo adierazita dago honekin batera doan taulan, hor ikusten baitira talde gazteen balio negatiboak (-13.445 eta -2.284 25-34 urtekoak eta 35-44 urteetakoak, hurrenez hurren).

Hala, Gipuzkoako emakume helduen % 14,8k bakarrik ditu 25-34 urte (2019), eta proportzio hori % 20,5ekoa zen 2010ean (-5,7 puntu). Era berean, txikitu egin da 35-44 urteko herritarren pisua (-1,2 puntu), eta, aldiz, handitu egin da 45-54 urtekoena (+1,3 puntu), 55-65 urtekoena (+1,9 puntu) eta batez ere, 65-74 urtekoena (+3,6 puntu), eta % 18,1eko ekarpena egin diote 2019an Gipuzkoako emakume helduen populazioari.

5. taula Emakumeen ikasketa-mailaren bilakaera, adinaren arabera. Gipuzkoa. Aldea 2010-2019

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74	Guztira
Ikasketa maila						
Lehen maila baino gutx.	385	153	-202	-991	-1.674	-2.329
Lehen mailakoak	-3.783	-6.016	-5.444	-7.540	1.649	-21.134
Profesionalak	418	-2.318	3.766	5.662	2.123	9.651
Bigarren mailakoak	-5.214	1.887	-1.605	645	4.156	-131
Goi eta erdi-goi maila	-5.251	3.470	6.560	6.828	2.266	13.873
GUZTIRA	-13.445	-2.824	3.075	4.604	8.520	-70

Iturria: Hezkuntzaren Udal Estatistika, Eustat

Azkenik, atxikitako grafikoek erakusten dute Gipuzkoako emakume helduen hezkuntza-egiturak 2010etik 2019ra izandako bilakaera, adinaren eta lortutako prestakuntza mailaren arabera (ikasketa orokorrak, profesionalak eta goi eta erdi-goi mailakoak):


- Ikasketa orokorren mailan, aipagarria da adin-talde guztietan murriztu dela presentzia 2010etik 2019ra. Hala ere, 65-74 urteko hamar emakumetatik zortzik ikasketa orokorrak ditu (% 82,2), eta proportzio hori hobetu egin da 2010etik



(% 90,6; -8,4 puntu). Jaitsiera bereziki garrantzitsua da 55-64 urtekoen taldean³ (-23,2 puntu). Gainerako adin-taldeek ere antzeko bilakaera izan dute, baina lehen mailako hezkuntzaren pisua askoz txikiagoa da –batez ere, 25-34 urtekoen taldean–.

- Ikasketa profesionalen mailan, aipagarria da 45-54 urteko adin-taldeak (% 25,4), 25-34 urtekoekin (% 21,5) eta 35-44 urtekoekin (% 20,5) batera egiten duen ekarpena. Garrantzi txikiagoa du 55-64 urteko emakumeen artean (% 18,9) eta 65-74 urtekoen artean (% 7,9), baina igoera handia izan du 2010etik bi adin-taldeen artean (+10,5 puntu eta +4,2 puntu, hurrenez hurren). Lanbide heziketak 35-44 urteko emakumeetan bakarrik galdu du pisua (-3,2 puntu).
- Azkenik, goi mailako eta erdi-goi mailako ikasketen mailan, adin-tarte guztien ekarpena handitu da 2010eko datuekin alderatuta, eta gehien, 25-34 urteko emakumeen artean (% 51,9; +3,6 puntu). Atzetik daude 35-44 urtekoen taldea (% 47,1; +8,7 puntu), 45-54 urtekoena (% 36,1; +10,4 puntu) eta neurri txikiagoan, 55,64 urtekoena (% 23,8; +12,6 puntu) eta 65-74 urtekoena (% 9,8; +4,2 puntu).

2. grafikoa Gipuzkoako emakume helduen bilakaera, adinaren arabera (2010-2019)




Iturria: Hezkuntzaren Udal Estatistika, Eustat

³ Hauxe da nahitaezko oinarizko prestakuntzaren (OHOren sustapena) ezarpenaren "mugan" dagoen belaunaldia.



3. grafikoa Ikasketa orokorrak dituzten emakumeak, adinaren arabera (2010-2019)


Ikasketa orokorrak dituzten emakumeen %; 25-74 urte



Iturria: Hezkuntzaren Udal Estatistika, Eustat

4. grafikoa Ikasketa profesionalak dituzten emakumeak, adinaren arabera (2010-2019)


Ikasketa profesionalak dituzten emakumeen %; 25-74 urte



Iturria: Hezkuntzaren Udal Estatistika, Eustat

5. grafikoa Goi eta erdi-goiko mailako ikasketak dituzten emakumeak, adina (2010-2019)

Goi mailako eta erdi-goiko mailako ikasketak dituzten emakumeen %; 25-74 urte



Iturria: Hezkuntzaren Udal Estatistika, Eustat



2.3. Emakumeen eta gizonen alderaketa

Alde nabarmenak generoaren arabera, eskuratutako prestakuntzari dagokionez


Gipuzkoako emakumeek eta gizonek eskuratutako prestakuntza mailaren alderaketa adinaren arabera eginda (2019), honako hauek ikusten dira:

- 54 urtera arte, hezkuntza orokorra duten gizonen proportzioa emakumeena baino handiagoa da (erdiak baino gehiago gizonak), baina 55 urtetik aurrera, emakumeen pisua gailentzen da, 65-74 urteko herritar heldu guztien artean guztizkoaren % 58,3 osatuta.
- Lanbide heziketan, adin-talde guztietan egiten dute gizonek ekarpen handiagoa (kasu guztietan % 50etik gora), eta aipagarria da 65-74 urtekoen eta 25-34 urtekoen adin-taldeetan duten pisua (% 68,3 eta % 62,1, hurrenez hurren). Ekarpena txikiagoa da 55-64 urtekoen artean: % 56,6.
- Hala ere, goi mailako eta erdi-goi mailako ikasketetan, emakumeen pisua gailentzen da, batez ere talde gazteenetan (54 urte arte), kontuan hartuta hezkuntza maila horretara iritsi diren hamar pertsonatik sei emakumeak direla. Aldiz, 55 urtetik gora, gizonek pisua irabazten dute: guztizkoaren % 57,6ko ekarpena egiten dute 65-74 adin-tartean.

Azken finean, Gipuzkoako emakumeek eta gizonek (25-74 urte) lortutako prestakuntza mailaren alderaketak erakusten du gizonen kolektiboak ekarpen handiagoa egiten duela hezkuntza orokorrean eta lanbide heziketan, eta aldiz, emakumeak gailentzen direla hezkuntza maila altuenean (goi mailako eta erdi-goi mailako ikasketak).

6. grafikoa Ikasketa orokorrak dituen biztanleria, adinaren eta sexuaren arabera. 2019


Ikasketa orokorrak dituzten 25-74 urtekoen %



Iturria: Hezkuntzaren Udal Estatistika, Eustat

7. grafikoa Ikasketa profesionalak dituen biztanleria, adinaren eta sexuaren arabera. 2019


Ikasketa profesionalak dituzten 25-74 urtekoen %



Iturria: Hezkuntzaren Udal Estatistika, Eustat

8. grafikoa Goi eta erdi-go mailako ikasketak dituen biztanleria, adina eta sexua. 2019

Goi mailako eta erdi-go mailako ikasketak dituzten 25-74 urtekoen %



Iturria: Hezkuntzaren Udal Estatistika, Eustat

3. Emakume gazteak, prestakuntza eta lan-egoera

3.1. Aurkezpena: prestakuntza eta enplegarritasuna

Kapitulu honetan, emakumeek enplegurako prestakuntzan egin duten ibilbideari begiratu zaio, eta hezkuntzaren uzte goiztiarra ere aztertzen da, prestakuntza-ibilbideko jarraitutasunaren erakusle gisa⁴.

Hala, lanbide-heziketari lotutako aurkeztutako informazioari dagokionez, EAEko Lanbide Heziketako zentroen sarean 2018an ikasketak amaitutako enplegatuak buruzkoak dira eskuragarri dauden azken datuak, eta promozio horrek 2019ko abenduan zuen lan-egoera jasotzen du.

Bestalde, euskal unibertsitateetarako (Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) jasotako informazioak 2016an ikasketak amaitutako ikasleei egiten die erreferentzia, eta haien enplegarritasun-irizpideak ere 2019ko abenduari dagozkio.

Gauzak horrela, helburua emakumeek ikaskuntzan duten egoera eta hirugarren hezkuntzan duten presentzia aztertzea da. Hain zuzen, aldaketa nabarmenak daude gizonek eta emakumeek haien prestakuntza-etapa garatzeko aukerak dituzten ezagutza arloen artean, eta horrek, ondorioz, haien enplegarritasunari eragiten die.

⁴ Informazioa EAERI dagokio, baina Gipuzkoako egoeraren erakusle gisa hartzen da.

3.2. Hezkuntzaren uzte goiztiarra


Emakumeen eskola-uztearen tasa beherantz doa eta gizonezkoen azpitik dago

Eskola-uzteak Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa (batxilergoa, Lanbide Heziketa oinarrizkoa eta erdi mailakoa) burutu ez, eta araututako hezkuntza-prestakuntzarik jasotzen ez duten pertsonen (18-24 urtekoak) ehunekoa neurtzen du.

Guztira, euskal gazteen (18-24 urtekoak) % 6,5ek ez dute osatu bigarren hezkuntzako bigarren etapa, eta ez du inolako prestakuntzarik jaso 2020an. Ehuneko hori 2010ekoaren erdia da (% 13,1, -6,6 puntu).

Honi erantsitako grafikoak erakusten du, gainera, emakumeen eskoletako uzte-tasa, EAEan, 2020an, % 4,3koa dela, eta proportzio hori gizonen kolektiboari dagokionaren (% 8,5) erdia da. 2010etik 2020ra, emakumeen artean ratio horrek izan duen jaitsierak (-8,3 puntu) gainditu egiten du gizonen artean izandako hobekuntza (-5,2 puntu).

9. grafikoa Hezkuntzaren uzte goiztiarra, sexuaren arabera. EAE



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkestako (EIN) hezkuntza-aldagaien ustiapena. Hezkuntza eta LH Ministerioa

EAEko eskola-uztearen ratioa Estatuan erregistratutakoa baino askoz txikiagoa da (% 6,5 eta % 16,0, hurrenez hurren), eta EB-27koa (% 10,6; 2015-2019) baino pixka bat apalagoa ere bada. Hiru arloetan txikiagoa da emakumeen tasa gizonena baino; baita aztertutako aldiaren izan den hobetze-sekuentzia (ratioaren jaitsiera) ere.

6. taula Hezkuntzaren uzte goiztiarra, sexuaren arabera. EAE-Estatua-EB27

18-24 urteko biztanleriaren %


	2006-2010	2011-2014	2015-2019	2020
Guztira EAE	14,7	11,4	7,7	6,5
Gizona	18,5	12,9	9,9	8,5
Emakumea	10,8	9,9	5,3	4,3
Guztira Estatua	30,4	24,1	18,5	16,0
Gizona	36,5	28,2	22,4	20,2
Emakumea	24,0	19,9	14,5	11,6
Guztira EB-27	14,4	12,2	10,6	e.e
Gizona	16,5	14,0	12,1	e.e
Emakumea	12,2	10,3	8,9	e.e

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkestako (EIN) hezkuntza-aldagaien ustiapena. Hezkuntza eta LH Ministerioa

Bestalde, EBko erreferentziazko herrialdeekin alderatuta, EAEk, 2010ean, emakumeen eskola-uzte tasa handiena izatetik, hobetze-sekuentzia handia izan, eta 2019an, aztertutako herrialde europarretako tasa baxuena izatera iritsi da. Hala, EAEk lortu egin du eskolako uzte-tasa goiztiarrak 2020rako % 10etik behera izateko EBk ezarritako helburua⁵, batez ere, emakumeen kolektiboari dagokionez (% 4,3).

10. grafikoa EBko erreferentziako herrialdeetako emakumeen hezkuntza uzte goiztiarraren alderaketa

18-24 urteko emakumeen %



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkestako (EIN) hezkuntza-aldagaien ustiapena. Hezkuntza eta LH Ministerioa

⁵ Europa 2020 Estrategiak 2010ean helburu nagusien artean ezarri zuen eskola-uzte goiztiarra EBn % 10etik beherakoa eta Espainian (tasa altua dela eta) % 15etik beherakoa izatearen helburua.



3.3. Lanbide-heziketako ikasketak amaitutako emakumeak

Igo egin da LH amaitutako emakumeen kopurua, baina ekarpenak behera egin du

Lanbide Heziketak erakusten du igoera jarraitua izan duela EAEko prestakuntza-zentroetan LHko ikasketak amaitu dituztenen kopuruak. Zehatzago esanda, 2006-2010 aldian, batez beste, 8.207 lagunek ikasketak amaitzetik, 2018an, ikasketak amaitutakoak 11.229 (eskuragarri dagoen azken datua) izateraino. Hala, 2014tik aurrera, Lanbide Heziketan ikasketak amaitu dituzten ikasleen kopurua, urtean, 10.000 eta 11.000ren artean finkatu da.

Hala ere, aztertutako aldi horretan, pixka bat jaitsi da emakumeen pisua, kontuan hartuta 2006tik 2010era emakumeen kolektiboak guztizkoaren % 45,1 osatzen zuela, eta proportzio hori % 38,2ra jaitsi zela 2018an (-6,9 puntu). Hala, Lanbide Heziketan ikasketak amaitutako emakumeen kopurua igo egin den arren, gizonena baino gutxiago igo da, eta pisu erlatiboa galdu du aztertutako aldian.

7. taula EAEko Lanbide Heziketan emakumeen presentziaren bilakaera

emakumeak

	2006-2010	2011-2014	2015-2017	2018
LHn egresatutako ikasleak				
Ikasleak guztira	8.207	10.142	10.906	11.229
Emakumeen %	45,1	43,5	40,9	38,2

Iturria: Euskal lanbide-heziketatik lan-munduratzeari buruzko azterlana. Lanbide

Familia profesionalek (FP) emakumeen presentziak sendotu egin ditu genero-rolak

Lanbide Heziketan emakumeen presentzia hobetu den arren, duten pisua familia profesional jakin batzuetan bakarrik da garrantzitsua, eta egoera horrek erakusten du genero-estereotipoek baldintzatutako aukeraketak egiten direla.

Zehatzago esanda, irudi pertsonalari lotutako ikasketak eta ehungintza, jantzigintza eta larrugintzari lotutakoak amaitu dituzten ia denak emakumeak dira (% 96,2 eta % 91,7, hurrenez hurren). Era berean, aipagarriak dira gizarte- eta kultura-zerbitzuak (% 77,8), osasungintza (% 77,2), elikagaigintza (% 70,0) eta turismoa (% 65,9); baita administrazioa (% 62,8) eta merkataritza eta marketina (% 51,4) ere; horietan, ikasketak amaitutako en erdia baino gehiago dira emakumeak.

Aldiz, emakumeen presentzia txikiena duten heziketa-zikloak itsas arrantzaren (% 1,9), garraio eta ibilgailuen mantentze-lanen (% 3,0), instalazio eta mantentze-lanen (% 4,1) eta elektrizitate eta elektronikaren (% 4,5) ingurukoak dira, eta horietan, ikasketak amaitutakoen % 5 baino gutxiago dira emakumeak.

Azken finean, ikasketak amaitu dituztenen generoa aintzat hartuta eskuratutako emaitzek baieztatzen dute ziklo batzuk, tradizionalki, feminizatuta daudela; oro har, zerbitzuen sektoreko lanbideekin lotutakoak (genero-rolak), eta aldiz, industriak (batez besteko soldata hobeak eta/edo lan-baldintza hobeak) eta lehen sektoreak ez dutela emakumeen ia presentziarik.

8. taula LHko familia profesioaletan emakumeen presentziak izandako bilakaera. EAE

Emakumeen %

	2006-2010	2011-2014	2015-2017	2018
Familia Profesionalak; emakumeen %				
<i>Irudi pertsonala</i>	99,1	97,4	97,2	96,2
<i>Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza</i>	91,1	90,8	83,1	91,7
<i>Gizarte- eta kultura-zerbitzuak eta kom.</i>	92,9	85,4	82,4	77,8
<i>Osasuna</i>	88,9	83,1	79,4	77,2
<i>Elikagaien industria</i>	60,3	48,1	56,7	70,0
<i>Turismoa</i>	83,9	73,2	74,7	65,9
<i>Administrazioa</i>	80,4	74,3	66,1	62,8
<i>Merkataritza eta marketina</i>	60,4	54,7	55,8	51,4
Kimika	59,5	58,9	53,8	49,5
Arte grafikoa	55,6	52,9	49,2	46,3
Eraikuntza eta obra zibila	30,5	29,5	33,0	42,7
Segurtasuna eta ingurumena	--	40,0	36,8	35,1
Ostalaritza	40,1	32,3	33,7	32,4
Komun., irudia eta soinua	43,1	35,3	31,9	25,9
Kirol-jarduera fisikoak	27,0	20,2	19,8	22,1
Nekazaritza	27,4	18,7	18,5	17,8
Egurra eta altzariak	7,3	6,6	5,6	11,4
Energia eta ura	--	8,3	11,7	9,5
Informatika	20,0	13,6	12,0	7,1
Fabrikazio mekanikoa	8,0	6,7	7,2	6,3
Elektrizitatea eta elektronika	5,7	4,8	4,7	4,5
Instalazioa eta mantentze-lanak	8,1	4,8	3,5	4,1
Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak.	2,5	2,7	2,2	3,0
Itsasoko eta arrantzako jar.	3,6	6,5	3,7	1,9

Iturria: Euskal lanbide-heziketatik lan-munduratzeari buruzko azterlana. Lanbide

Eta familia profesionalen aukeraketa dago emakumeen enplegarritasun okerragoa izatearen oinarrian

Erantsitako koadroak erakusten du enplegarritasunaren hiru adierazleek izandako bilakaera, eta generoaren arabera alderaketa. Emaitzek hau erakusten dute:

- Jarduera-tasa, promozio guztietatik aktibo (landunak eta langabeak) daudenen ehunekoa alegia, antzekoa da emakumeen eta gizonen artean, eta aztertutako aldian egonkor dago, % 65 inguruan.
- Okupazio-tasa, aktibo dauden guztietatik landunak direnen ehunekoa alegia, handiagoa da gizonetan (% 83,8) emakumeetan (% 80,7) baino, baina gora egin du bi kolektiboetan, enplegua sortzen ari den agertoki berri honekin bat etorrira.
- Langabezia-tasa, aktibo daudenetatik langabezian daudenen ehunekoa alegia, handiagoa da emakumeetan (% 19,3) gizonetan baino (% 16,2), nahiz eta bi kolektiboetan murriztu den nabarmen 2011-2014 aldiarekin alderatuta (-15,4 puntu emakumeetan; -20,5 puntu gizonetan).

9. taula Euskadiko LHtik lan-merkatuan sartzea, generoaren arabera

	2011-2014	2014-2017	2018
%			
Egresatutako emakumeak			
Jarduera tasa	65,9	67,4	63,8
Okupazio tasa	65,3	76,4	80,7
Langabezia tasa	34,7	23,6	19,3
Egresatutako gizonak			
Jarduera tasa	61,3	66,9	63,7
Okupazio tasa	63,3	79,3	83,8
Langabezia tasa	36,7	20,7	16,2

Iturria: Euskal lanbide-heziketatik lan-munduratzeari buruzko azterlana. Lanbide

Hala, EAEko ikastetxeetan Lanbide Heziketa amaitu duten emakumeek gizonak baino enplegarritasun-adierazle apur bat okerragoak dituzte; okupazio-tasa txikiagoa eta langabezia handiagoa. Ikasketa-adarraren aukeraketak azal ditzake emaitza horiek; izan ere, lan-munduratze hobea dute industria arloko zikloek eta, horietan, gizonezkoak gailentzen dira. Emakumeek, aldiz, zerbitzuen sektoreari lotutako zikloetara jotzen dute gehiago.

3.4. Unibertsitateko ikasketak amaitutako emakumeak

Emakumeen presentzia handiagoa euskal unibertsitateetan, baina bat egiteko joerarekin

Euskal unibertsitateetan ikasketak amaitutako ikasleen kopuruak beherantz egin du pixka bat: 2008-2011 urteetan, batez beste, 9.467 pertsonak amaitu zituzten ikasketak eta 2016an, berriz, 8.965 pertsonak (-502 pertsona). Eraitza horrek biztanleria-oinarria erakusten du; izan ere, 2008-2011 aldirian, laurogeiko hamarkadan jaiotako belaunaldiak ari ziren ateratzen, ondorengoak eta laurogeita hamarreko hamarkadan jaiotako jaiotakoak baino ugariagoak.

Bestalde, aipagarria da emakumeen kolektiboa; izan ere, EAEn unibertsitateko ikasketak amaitutako hamar pertsonatik sei emakumeak dira. Hala ere, kolektibo horrek beherantzko joera txiki bat du⁶ 2008-2011 eta 2016 artean (% 60,3tik % 57,0ra).

10. taula Euskal unibertsitateetan ikasketak amaitutako pertsonak eta emakumeen presentzia

	Emakumeen %			
	2008-2011	2012-2013	2014-2015	2016
Unibertsitatean egresatutako ikasleak				
Ikasleak guztira	9.467	9.563	9.170	8.965
Emakumeen %	60,3	58,0	57,0	57,0
Familia Profesionalak; emakumeen %				
Osasuna	e.e	78,5	77,0	78,7
Sozialak	e.e	74,5	72,6	68,6
Giza-zientziak	e.e	70,2	66,9	64,7
Esperimentalak	e.e	63,1	60,4	57,3
Ekonomiko-juridikoak	e.e	58,4	55,8	55,1
Teknikoak	e.e	31,1	30,6	33,2

Iturria: Euskal unibertsitateetatik lan-munduratzeari buruzko azterlana. (Lanbide)

Emakumeak gailentzen dira, ikasketa teknikoetan izan ezik

Emakumeen presentzia gizonena baino askoz handiagoa da osasunaren arloan, kontuan hartuta prestakuntzaren adar honetan ikasketak amaitu dituzten laurik hiru emakumeak direla (% 78,7). Era berean, aipagarria da gizarte-zientzietan eta giza zientzietan duten pisua (% 68,6 eta % 64,7, hurrenez hurren), ekonomia eta ikasketa

⁶ Joera hori azal dezaketen faktoreak: gizonen kolektiboak igoera erlatibo handiagoa, eta/edo euskal emakume gazteak gehiago joatea (batez beste) EAETik kanpoko unibertsitateetara, eta/edo igoera handiagoa (batez beste) emakumeek Lanbide Heziketa aukeratzeari lotuta.

juridikoekin batera (% 55,1). Aldiz, ikasketa teknikoak amaitutakoen herena (% 33,2) bakarrik dira emakumeak, eta gizonak nabarmen nagusitzen dira ingeniaritza, informatika, arkitektura eta beste gradu batzuetan.

Aipagarria: emakumeen nagusitasunak ez du aldaketarik izan osasunaren arloan, baina atzera egin du gainerako arloetan, teknikoetan izan ezik (horietan, hobekuntza txiki bat hauteman da).

Lan-munduratze antzekoa emakume zein gizon unibertsitarioek, nabardurekin

Euskal unibertsitateetan ikasketak amaitutako emakumeen eta gizonen enplegarritasuna alderatuta ikusten da, oro har, emaitzak oso antzekoak direla generoaren arabera. Hala,

- Emakumeen nahiz gizonen kolektiboetan, ikasketak amaitutako ia denak lanean ari dira eta/edo lan bila modu aktiboan dabilta (emakumeen % 93,0 eta gizonen % 94,0). Adierazle hori egonkor egon da aztertutako aldian.
- Okupazio-tasak erakusten du hamar pertsona aktibotatik bederatzik dutela ordaindutako enplegu bat bi kolektiboetan (% 90,0), eta 2008-2016an erregistratutako hobetze-sekuentzia partekatzen dute.
- Langabezia-tasa % 10,0koa da emakume nahiz gizon unibertsitarioen artean (2016), eta ratio hori nabarmen jaitsi da 2008ko krisi-garaitik. Orduan, ia bikoitza zen tasa, eta handiagoa zen emakumeetan (% 20,1ekoa, eta gizonetan, % 18,3koa).
- Unibertsitateko ikasketak amaitu eta lehen lan-aukera izan arte igarotako denbora 13 hilabetekoa da emakumeetan; gizonen ratioa baino pixka bat luzeagoa (12 hilabete). Hala ere, bi kolektiboek sei hilabete inguru pasatzen dituzte lehen enpleguaren bilaketan.
- Gauzak horrela, euskal unibertsitateetan ikasketak amaitutakoen % 98k badu lan-esperientzia unibertsitateko ikasketak amaitu eta handik hiru urtera.

11. taula Euskal unibertsitateetan ikasketak amaitutako pertsonen lan-munduratzeari buruzko azterlana, generoaren arabera

%

	2008-2011	2012-2015	2016
Egresatutako emakumeak			
Jarduera tasa	91,5	93,0	93,0
Okupazio tasa	79,9	86,0	90,0
Langabezia tasa	20,1	14,2	10,0
Karrera bukatu eta 1go enplegua bilatzea (hilab., b.b)	8,8	11,0	13,0
1go lana bilatzeko denbora (hilabeteak, batez beste)	5,3	6,3	6,0
Lan-esperientzia duten emakumezko aktiboak	93,8	94,5	98,0
Egresatutako gizonak			
Jarduera tasa	91,3	94,2	94,0
Okupazio tasa	81,7	88,0	90,0
Langabezia tasa	18,3	11,8	10,0
Karrera bukatu eta 1go enplegua bilatzea (hilab., b.b)	8,3	10,5	12,0
1go lana bilatzeko denbora (hilabeteak, batez beste)	4,8	5,4	6,0
Lan-esperientzia duten emakumezko aktiboak	93,5	95,8	98,0
Genero-arrakala (diferentzia emakumeak eta gizonak)			
Jarduera tasa	0,2	-1,2	-1,0
Okupazio tasa	-1,8	-2,0	0,0
Langabezia tasa	1,8	2,4	0,0
Karrera bukatu eta 1go enplegua bilatzea (hilab., b.b)	0,5	0,5	1,0
1go lana bilatzeko denbora (hilabeteak, batez beste)	0,5	0,9	0,0
Lan-esperientzia duten emakumezko aktiboak	0,3	-1,3	0,0

Iturria: Euskal unibertsitateetatik lan-munduratzeari buruzko azterlana. (Lanbide)

4. Emakumea eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

4.1. Bizitza osoko ikaskuntzaren definizioak

Bizitza osoko ikaskuntzaren kontzeptuak jarduera ugari biltzen ditu, besteak beste, pertsonen egunerokotasunean eta bizitzako arlo guztietan, arlo zibiko, sozial edo profesionalean, ezagutzak, gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko egindakoak. Beraz, bizitza osoko ikaskuntzak bat egiten du erakundeetan talentuari eusteko helburuarekin, eta aldi berean, pertsonen bizitzako alderdi guztietara ezagutza eta jakin-mina zabaltzen du. Hori horrela, honako ikaskuntza-tipologiak hartu dira kontuan:

- Ikaskuntza formala: hezkuntza- eta prestakuntza-zentroetan egiten da eta aitortutako kualifikazioak eta diplomak lortzera bideratuta dago.
- Ikaskuntza ez-formala: modu antolatuan eta iraunkorrean egiten da, baina ez dago bideratutako titulu ofizial bat lortzera. Hezkuntza-erakundeen baitan nahiz kanpoan egin daiteke (bizitzan moldatzeko tresnak, lanarekin lotutako ikastaroak, kultura orokorra, pintura-eskolak...).
- Ikaskuntza informala: ikasteko asmoz egiten diren jarduerak dira, norbere kasa egiten dira, inolako erakundetara joan gabe. Ez dago ikaskuntza ez-formala bezain egituratuta, adibidez, familian izaten diren ikaskuntza-jarduerak, lantokikoak, edo pertsona bakoitzaren eguneroko bizitzakoak izan daitezke..
- Bizitza osoko ikaskuntzak azken 12 hilabeteetan eginiko jarduerari egiten die erreferentzia.
- Etengabeko ikaskuntza azken 4 asteetan eginiko ikasketa gisa ulertuta.

4.2. Emakumeen parte-hartzea ikaskuntzan

Gipuzkoako hamar emakume heldutatik lauk ikasten dute

2019an, hamar emakumetik lau (% 42,4) ikasten aritu dira kontsulta egin aurreko hamabi hilabeteetan. Proporzio hori laurdenera murrizten da azken lau asteetan eginiko ikaskuntzari begiratuta (% 13,9).

Tabla 12 Emakumeen parte-hartzea bitzita osoan zeharreko ikaskuntzan

Baiezkoen %, 25-74 urteko emakumeak

	2008-2011	2013-2016	2017-2019	2020
Etengabeko ikaskuntza (azken 12 hil.)	35,9	40,1	40,0	42,4
Ikaskuntza jarraia (azken. 4 asteak)	17,0	15,5	19,0	13,9
Ikaskuntza formala	8,5	7,0	9,3	9,9
Ikaskuntza ez-formala	31,2	35,9	36,0	35,2
Ikaskuntza informala	22,5	21,0	17,1	16,9

*Ikaskuntza informaleko parte-hartzea ez da aintzat hartzen etengabeko ikaskuntza kalkulatzeko orduan
Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia*

Ikaskuntza ez-formala⁷ da emakumeen kolektiboan nagusi den modalitatea; emakumeen herena baino gehiago ari da prestakuntza-jarduera horietan parte hartzen (% 35,2). Hamar emakumetik ia bik adierazi dute parte hartzen dutela ikaskuntza informalean⁸ (% 16,9), eta garrantxi txikiena duen modalitatea ikaskuntza formala⁹ da (% 9,9).

Igo egin da emakumeek ikaskuntzan duten parte-hartzea; baina ez kasu guztietan

2008tik 2019ra, % 35,9tik % 42,4ra igo da (+5,6 puntu) bitzita osoko ikaskuntzako jardueretan parte hartu duten Gipuzkoako emakume helduen proportzioa. Hala ere, jaitsi egin da pixka bat etengabeko ikaskuntzan duten parte-hartzea (-3,1 puntu). Bestalde, emakumeek neurri handiagoan ikasten dute ikaskuntza formalaren (+1,4 puntu) eta ez-formalaren (+4,0 puntu) bidez, baina modalitate informalak garrantzia galdu du emakumeen artean (-5,6 puntu).

⁷ Arloren batean (zaletasunak ere izan daitezke) trebezia edo ezagutzak areagotzeko asmoz egiten da, baina ez dakar fitulu edo ziurtagiri ofizial bat lortzea.

⁸ Autoikaskuntza, prestakuntza-zentroetara joan gabe eta/edo horiek sortutako materialarekin.

⁹ Titulu akademiko bat eskuratzeko aukera ematen duen prestakuntza arautua.

4.3. Emakumeen parte-hartzea ikaskuntzan, eta adina

Ikaskuntzako parte-hartzea jaitsi egiten da adinak gora egin ahala

Adinaren osagaiak alde handiak dakartza Gipuzkoako emakume helduek ikaskuntzan parte hartzeari dagokionez. Hala,

- 25-34 urteko hamar emakumetatik sei (% 59,1) ikasten aritu dira azken hamabi hilabeteetan, eta proportzio hori nabarmen murrizten da emakume zaharragoetan (% 16,4; 65-74 urtekoak).
- Herritar gazteenen herenak (% 33,3) dio ikaskuntzan parte hartu ohi dutela, baina hondar-pisua du 65-74 urteko emakumeen artean (% 4,5).
- Aldea agerikoa da ikaskuntza formalean ere: kolektibo adinduenek ez dute parte-hartzerik.
- Modalitate ez-formalean, aipagarria da 35-44 urteko emakumeen parte-hartzea (% 40,7), 25-34 urtekoekin (% 42,4) batera, eta aldiz, 65-74 urtekoak dira hein txikienean ikasten aritzen direnak (% 16,4).
- Azkenik, 45-54 urtekoen kolektiboa da modu informalean gehien aritzen dena (% 23,5), baina aipagarria da homogeneousitasun handiagoa adinaren arabera.

Beraz, emakumeek ikaskuntzan duten parte-hartzeak behera egiten du, nabarmen, adinak gora egin ahala, eta emakume gazteenek (25-34 urtekoek) ikasten dute hein handienera, eta zaharrenak daude beste aldean (65-74 urtekoak).

13. taula Emakumeen parte-hartzea bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan, adinaren arabera. 2020

Baiezkoen %, 25-74 urteko emakumeak

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Etengabeko ikaskuntza (azken 12 hil.)	59,1	55,0	43,5	34,1	16,4
Ikaskuntza jarraia (azken. 4 asteak)	33,3	17,0	10,6	5,9	4,5
Ikaskuntza formala	24,2	11,0	9,4	5,9	0,0
Ikaskuntza ez-formala	42,4	47,0	37,6	28,2	16,4
Ikaskuntza informala	18,2	17,0	23,5	16,5	7,5

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia

4.4. Ikasteko arrazoiak

Emakumeen erdiek baino gehiagok arrazoi profesionalengatik ikasten dute

Honi erantsitako koadroak erakusten du Gipuzkoako emakume helduek, hein handi batean, arrazoi profesionalengatik ikasten dutela. Zehatzago esanda, hamar emakumetatik ia seik (% 56,7) arrazoi hori aipatu dute, eta arrazoi pertsonalak, berriz, % 43,3k aipatu dituzte. Banaketa hori nahiko egonkorra da, eta baieztatu egiten du ikasteko arrazoi nagusi gisa arlo profesionalak duen garrantzia.

14. taula Emakumeek ikasteko dituzten arrazoiak

Ikasten aritu diren 25-74 urteko emakumeen banaketa (%)

	2008-2011	2013-2016	2017-2019	2020
Arrazoi profesionala	55,4	68,1	62,5	56,7
Arrazoi pertsonala	44,6	31,8	37,5	43,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia

45-54 urteko emakumeek arrazoi profesionalak aipatzen dituzte

Ikasteko bi arrazoi handien pisuan alde handiak daude emakumeen adinaren arabera. Hala, 45-54 urteko lau emakumetatik hiruk (% 75,0) aipatu dute arrazoi profesionalengatik ari direla ikasten, eta proportzio horrek behera egiten du pixka bat 35-44 urteko kolektiboan (% 63,6) eta 25-34 urtekoenean (% 56,3), nahiz eta bi horietan ere arrazoi nagusia izan. Aldiz, 55-64 urteko emakumeek arrazoi pertsonalengatik ikasten dutela gehienbat (% 60,0 eta % 40,0).

11. grafikoa Emakumeek ikasteko dituzten arrazoiak, adinaren arabera. 2020

Ikasten aritu diren emakumeen banaketa (%)



Oharra: 65-74 urtekoen taldea ez dago sartuta, ikaskuntza formalean ez baitute parte hartzen. Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gauzak horrela, arrazoi profesionalak garrantzia irabazten du lan-merkatuan presentzia aktiboa duten emakumeen artean (25-54 urtekoak), eta aldiz, pisu erlatiboa galtzen du erretiro-adinera gerturatzen ari den kolektiboan (55-64 urte), horiek, hein handi batean, arrazoi pertsonalengatik ikasten baitute.

4.5. Ez ikasteko arrazoiak

Familiari lotutako erantzukizunak dira ikasteko oztopo nagusia...

Ez ikasteko emandako arrazoei dagokienez (kontsulta egin aurreko hamabi hilabeteetan prestakuntza-jardueretan ez dutela parte hartu adierazi duten emakumeak), honako hauek nabari dira (2019):

- Ikasteko oztopo nagusia familiari lotutako erantzukizunak dira, eta Gipuzkoako emakume helduetan, hamarretik lau (% 44,8) adierazi dute hori.
- Emakumeen heren batek (% 33,6) aipatu du prestakuntza bateraezina dela lan-ordutegiarekin, eta hamarretik bik (% 21,1) motibazio-falta adierazi dute.
- Planteatutako gainerako gaiak aipamen maila txikiagoa dute: adinaren faktorea (% 10,3), behar adinako ezagutza (% 9,5) eta ordaindu ezin izatea (% 8,7).

15. taula Ez ikasteko arrazoiak

Baiezkoen %, ikasten aritu ez diren 25-74 urteko emakumeek

	2008-2011	2013-2016	2017-2019	2020
Ez ikasteko arrazoiak				
Erantzukizun familiarrek ez didate uzten	51,3	47,5	48,7	44,8
Ordutegia lanarekin ez bateragarria	19,7	25,5	31,0	33,6
Motibazio falta	22,9	34,5	27,9	21,1
Ez dut adinik, zaharregia naiz	7,3	11,3	12,7	10,3
Ez dut behar, jakintza nahikoak	7,7	8,3	12,0	9,5
Garestia da, ezin dut ordaindu	1,9	8,9	9,4	7,8

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia

... baina pisua irabazi du prestakuntza lan-ordutegiarekin bateraezina izateak

2008tik 2019ra, familiari lotutako erantzukizunak izan dira ez ikasteko arrazoi nagusia, baina pixka bat jaitsi da arrazoi horren garrantzia: % 51,3tik % 44,8ra (-6,5 puntu). Aldiz, asko igo da prestakuntzaren eta laneko ordutegiaren arteko bateraezintasuna:

aztertutako aldian, ia laukoiztu egin baita aipamen maila (+13,9 puntu). Horrez gain, aipagarria da ikasteko oztopo gisa prestakuntzaren kostua aipatu dutenen igoera (+5,9 puntu). Gainerako arrazoietan, ez da aldaketa handirik izan.

Adinak eragina du ez ikasteko arrazoi bakoitzaren garrantzian

Adinaren osagaiak alde handiak ezartzen ditu bizitza osoko ikaskuntzako jardueretan ez parte hartzeko arrazoiari lotuta. Zehazki,

- Emakume gazteenen kolektiboak (25-34 urte) aipatu ditu gehien prestakuntzaren eta laneko ordutegiaren arteko bateraezintasuna (% 74,1) eta prestakuntzaren kostua (% 18,5) ikaskuntzarako oztopo gisa.
- Familiari lotutako erantzukizunek dute adostasun maila txikiena adin-talde honetan, nahiz eta garrantzi handia izan (% 29,6). Hala ere, azken gai horretan adostasun handiagoa da 55-65 urteko emakumeen artean (% 50,0).
- Bestalde, emakume zaharreneen artean (65-74 urte) aipagarriak dira motibazio-falta (% 30,4) eta ikasteko zaharregiak direla pentsatzea (% 32,1).

16. taula Ez ikasteko arrazoiak, adinaren arabera. 2020

Baiezkoen %, ikasten aritu ez diren 25-74 urteko emakumeak

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Ez ikasteko arrazoiak					
Erantzukizun familiarrek ez didate uzten	29,6	44,4	45,8	50,0	46,4
Ordutegia lanarekin ez bateragarria	74,1	44,4	54,2	21,4	0,0
Motibazio falta	14,8	15,6	14,6	25,0	30,4
Ez dut adinik, zaharregia naiz	0,0	4,4	4,2	3,6	32,1
Ez dut behar, jakintza nahikoak	7,4	11,1	12,5	3,6	12,5
Garestia da, ezin dut ordaindu	18,5	8,9	8,3	7,1	1,8

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia

4.6. Emakumeen eta gizonen alderaketa

Gizonek baino hein handiagoan ikasten dute emakumeek

Honi erantsitako koadroak erakusten du Gipuzkoako emakume helduek bizitza osoko ikaskuntzako jardueretan gehiago hartzen dutela parte gizonek baino aintzat hartutako modalitate guztietan, ikaskuntza informalean izan ezik. Zehazki,

- Gipuzkoako emakume helduen % 42,4 ikasten aritu da azken urte honetan, eta gizonetan, berriz, % 38,3 (+4,1 puntu).
- Etengabeko ikaskuntzako parte-hartzea ere handiagoa da emakumeen artean (% 13,9 eta % 11,8).
- Jokabide hori ikaskuntza formalean eta ez-formalean errepikatzen da (+3,1 puntu eta +1,9 puntu, hurrenez hurren).
- Hala ere, ikaskuntza informaleko parte-hartzea gizonetan handiagoa da emakumeetan baino (% 20,8 eta % 16,9).

17. taula Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan parte-hartzea, adinaren arabera. 2020

25-74 urteko biztanleriaren %

	Emakumea	Gizona	Diferentzia
Etengabeko ikaskuntza (azken 12 hilabeteak)	42,4	38,3	4,1
Ikaskuntza jarraia (azken. 4 asteak)	13,9	11,8	2,1
Ikaskuntza formala	9,9	6,8	3,1
Ikaskuntza ez-formala	35,2	33,3	1,9
Ikaskuntza informala	16,9	20,8	-3,9


Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrazoi profesionalak dira ikasteko arrazoi nagusia

Arrazoi profesionalak dira ikasteko arrazoi nagusia, bai gizonetan, bai emakumeetan. Hala ere, gizonen artean pixka bat txikiagoa da arrazoi profesionalen garrantzia (% 51,9 eta % 60,0 emakumeak), aldiz, nabarmenagoa da arrazoi pertsonalen aipamen-maila (% 48,1 eta % 40,0, hurrenez hurren).

12. grafikoa Ikasteko arrazoiak, generoaren arabera. 2020

Ikasten aritu den 25-74 urteko biztanleriaren %



Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia

Ez ikasteko arrazoiak aldatu egiten dira generoaren arabera

Honi erantsitako koadroak erakusten du generoaren arabera alde handiak daudela ez ikasteko arrazoietan; batez ere, familiako erantzukizunei dagokienez. Izan ere, emakumeen ia erdiek adierazi dute familiako erantzukizunak direla ikasteko oztopo nagusia (% 44,8), baina proportzio hori erdira murrizten da gizonetan (% 23,5). Hala, ehuneko 21,3 puntuko genero-arrakala dago.

Planteatutako gainerako gaietan, aldea txikiagoa da, eta aipamen-maila nahiko antzekoa da bi kolektiboen artean.

18. taula Ez ikasteko arrazoiak, generoaren arabera. 2020

Ikasten aritu den 25-74 urteko biztanleriaren %

	Emakumea	Gizona	Diferentzia
Ez ikasteko arrazoiak			
Erantzukizun familiarrek ez didate uzten	44,8	23,5	21,3
Ordutegia lanarekin ez bateragarria	33,6	31,6	2,0
Motibazio falta	21,1	24,3	-3,2
Ez dut adinik, zaharregia naiz	10,3	16,2	-5,8
Ez dut behar, jakintza nahikoak	9,5	14,6	-5,1
Garestia da, ezin dut ordaindu	7,8	5,7	2,1

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia

5. Ondorioak

5.1. Laburpena: emaitza nagusiak

Azken kapitulu honetan jasotzen dira emakumeek Gipuzkoan duten egoerari buruz eginiko analisiaren ideia nagusiak, honako adierazle hauen arabera: prestakuntza, parte-hartzea hezkuntza formalean eta bizitza osoko ikaskuntzan.

Emakumeen prestakuntza

- 2019an, Gipuzkoako emakume helduen (25-74 urte) herenak goi mailako eta erdi-goi mailako ikasketak dituzte, eta hamarretik bik Lanbide Heziketa egin dute.
- Hala, emakume helduen erdiek ikasketa espezializatuak dituzte (% 52,7). Proporzio horrek nabarmen egin du gora 2010etik (+ 10,0 puntu).
- Belaunaldi gazteenek ikasketa maila handiagoa dute: 25-34 urteko lau emakumetatik hiru espezializatu egin da (% 73,4), eta 65-74 urteko emakume gehienek ikasketa orokorrak dituzte (% 82,2).
- Generoaren araberako alderaketak erakusten du gizonen kolektiboak pisu handiagoa duela hezkuntza orokorrean eta profesionalean, eta aldiz, emakumeak nagusitzen direla hezkuntza maila gorenean (goi mailako eta erdi-goi mailako hezkuntzan).

Emakume gazteak, prestakuntza eta lan-egoera

- Jaitsi egin da eskolako uzte-tasa emakumeen artean, eta gizonen ratioaren oso azpitik dago (% 4,3 eta % 8,5; 2020ko datua).
- Hala, EAEk lortu du EBk ezarritakoa helburua (% 10 baino txikiagoa izatea).

- Igo egin da LHko ikasketak amaitu dituzten emakumeen kopurua, baina guztizkoaren % 38,2 bakarrik dira eta pisu-galera txiki bat izan dute (% 45,1 2006-2010ean, batez beste).
- Zerbitzuen eta pertsonen arretarako familia profesionaletan dagoen emakumeek presentziak, eta industrian presentzia txikia izateak (eta gizonetan alderantziz) baieztatzen du hor dirautela “genero-rolak”.

Egoera horrek Lanbide Heziketan ikasketak amaitu dituzten emakumeek gizonen baino enplegagarritasun okerragoa –okupazio txikiagoa eta langabezia handiagoa– izatea dakar.

- Emakumeen presentzia handiagoa da unibertsitateko prestakuntzan (guztizkoaren % 57,0), baina pisua galtzeko joera du (% 60,3 2008-2011 aldian, batez beste).
- Emakumeen presentzia handia da ezagutza-adar guztietan; batez ere osasunean (% 78,7), baina behera egiten du ikasketa teknikoetan (% 33,2).
- Emakume unibertsitarioen lan-munduratzeara positiboa da eta ez dago ia alderik gizonen kolektiboarekin.

Emakumea eta bizitza osoko ikaskuntza

- Gipuzkoako hamar emakume heldutatik lau ikasten aritu dira, eta aipagarria da ikaskuntza ez-formalean duten parte-hartzea.
- Bizitza osoko ikaskuntzaren adierazle guztietan igo da emakumeen parte-hartzea.
- Emakume gazteak dira (25-34 urte) hein handiagoan ikasten dutenak (% 59,1) adin handiena dutenen aldean (% 16,4; 65-74 urtekoak).
- Arrazoi profesionalak dira ikasteko arrazoi nagusia, baina 55 urtetik gorakoetan arrazoi pertsonalak nagusitzen dira.
- Familiako erantzukizunak dira ikaskuntzan murgiltzeko oztopo nagusia, baina pisua galtzen du arrazoi horrek kolektibo gazteenean eta gizonetan.

Izenburua:	Emakumeen prestakuntza 76. dokumentua, 2021eko martxo
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Saila Gipuzkoako Foru Aldundia
Lanketa	IKEI, research & consultancy S.A.
Informazio iturriak	Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Saila (GFA), Eustat, Lanbide eta Hezkuntza eta LH Ministerioa